

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“Murgako biltegia aprobetxatzeko proiektua, Laudioko hornidura hobetzeko.”-k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala bada, gogio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, 275/2022 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Laudioko hornidura hobetzeko Murgako biltegia aprobetxatzeko proiektuaren” jendaurreko informazioan aurkeztutako alegazioen erantzuna. Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Abenduaren 28ko 857/2021 Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez, hasiera batean onetsi zen “Laudioko hornidura hobetzeko Murgako biltegia aprobetxatzeko proiektuaren” eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakatua, eta jendaurrean jartzeko nahitaezko izapidea bete zen.

Proiektua jendaurrean egon den aldian alegazio idazki bat aurkeztu zen desjabetze espedientearen identifikaturiko 20/000 finkari lotuta. Lege eta Administrazio Zerbitzuak eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak horren gaineko txostena egin dute, eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak idazki hori onetsi du, eta bere egin du Gobernu Kontseilu honek. Hura da erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileari igorriko zaio, aurkeztutako alegazioa baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Era berean, behin betiko onetsi behar da proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda. Zerrenda hori egiteko kontuan hartu dira Amurrioko Jabetza Erregistroak egindako jabari eta zama ziurtagiriak, 12/000, 16/00 eta 18/000 finken afekzioen aldaketak, eta desjabetzea baloratzeko Desjabetze Atalak kontuan hartu dituen eraginpeko finken egungo aprobetxamenduak. Desjabetzearen balioa 57.957,29 eurokoa da.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra deklaratu behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Abenduaren 23ko 3376/1971 Dekretuaren artikulua bakarrean xedatzen da ezen herriak hornitzeko urak edateko gai bihurtzeko obrak presakotzat aitortuko direla, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua onorioetarako. Hori dela eta, ulertzen da proiektu honek dakarren jardunak berekin dakarrela okupatzeko premia, eta desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen xedatutako presako prozeduraren bidez izapidetu ahal da.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du proiektuaren obra publikoa proiektatu eta gauzatzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikuluan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 6.e) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legeak 2.1 artikuluan.

Proiektuek berekin dakartenean onura publikoaren aitorpena egin beharra desjabetzeak gauzatzeko eta desjabetzeek eragindako eskubide eta ondasunen behin betiko zerrendak egiteko, erakunde honen barnean, Foru Gobernu Kontseilua da proiektuak onesteko eskumena duen organoa, hala xedatzen baitute Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horrenbestez, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. "Laudioko hornidura hobetzeko Murgako biltegia aprobetxatzeko proiektua" jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzutea, eta Lege eta Administrazio Zerbitzuak eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak emandako informazioaren arabera onestea edo ezestea.

Bigarrena. Onespina ematea "Laudioko hornidura hobetzeko Murgako biltegia aprobetxatzeko proiektuaren" eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, zeina honekin batera doan eranskinean jaso baita.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra aitortzea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo amaitzeko.

Laugarrena. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan araututako presako prozeduraz izapidetzea desjabetze espedientea.

Bosgarrena. 57.957,29 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko aurrekontuko 50106. G/453501/60000501 "Desjabetze hidraulikoak" partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-1689/000.22.1.22), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justuaren zenbatekoa ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epeetan.

Zazpigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2022rako aurrekontua gauzatzeko abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauaren 15. artikulua.

Erabaki honek administrazio bideari amaiera ematen dio, eta beraren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsoaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespena gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Aiarako Udaletxetako lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 10a

Bide Azpiegituren zuzendaria
FERRAN SOLÉ I PALLEJÀ

MURGAKO BILTEGIA APROBETXATZEKO PROIEKTUA. LAUDIOKO HORNIDURA HOBETZEKO.
PROYECTO DE APROVECHAMIENTO DEL DEPÓSITO DE MURGA PARA MEJORA DEL ABASTECIMIENTO A LLODIO

FINKAREN ZK.	TITULARREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALA	APROBETXAMENDUA	BEHIN-BETIKOA		ERA GINDAKO AZALERA M ²	EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSALA			BEHIN-BETIKOA	ZORTASUNA			
Nº FINCA	NOMBRE DEL PROPIETARIO	DATOS CATASTRALES		AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	DEFINITIVA	SUPERFICIE AFECTADA M ²	SERVIDUMBRE Conducción agua 6 m.	DIA	HORA
		POLIGONO	PARCELA							
6/000	UGARTE, ARZA, ALBERTO MARIA	5	530-A	AIARA / AYALA	MENDIA B / MONTE B		309	88	8/6/22	10:00
7/000	UGARTE, ARZA, ALBERTO MARIA	5	2400-A	AIARA / AYALA	LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO		1.536	468	8/6/22	10:00
11/000	UGARTE, ARZA, ALBERTO MARIA	5	519	AIARA / AYALA	ZELAIA / PRADERA		1.076	297	8/6/22	10:00
24/000	UDAETA, ABASOLO, M. ISABEL	4	326	AIARA / AYALA	MENDIA / MONTE		351	71	8/6/22	11:00
12/000	IBARROLA, BERGANZA, MARGARITA PÉREZ, CARRERA, FRANCISCO	5	522-A	AIARA / AYALA	LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO		1.064	347	8/6/22	12:15
16/000	IBARROLA, BERGANZA, J. RAMON BEDINAR, GRACIANO, ANTONIA	5	454	AIARA / AYALA	ZELAIA / PRADERA	16	1.649	506	8/6/22	13:00
13/000	IBARROLA, BERGANZA, J. RAMON	5	508-A 508-B	AIARA / AYALA	ZELAIA / PRADERA MENDIA / MONTE	6	1313 646	374 207	8/6/22	13:00
19/000	OLABARRIETA IBARRONDO, M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO, M. INMACULADA OLABARRIETA IBARRONDO, M. BEGOÑA OLABARRIETA IBARRONDO, M. TERESA ISABEL	4	207-A 207-B	AIARA / AYALA	ORUBEA / SOLAR LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO		1048 1155	368 483	9/6/22	10:00
20/000	MOLINUEVO, OSEGUERA, MIGUEL ANGEL	4	206-A 206-B	AIARA / AYALA	ORUBEA / SOLAR LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO		239 780	0 97	9/6/22	10:45
21/000	MOLINUEVO, SOJO, JESUS	4	331-A	AIARA / AYALA	HIRI-LURRAT URBANA		478	167	9/6/22	12:00
22/000	GIL, WANSO, ENRIQUE LUNZUETA, OLAGÜENAGA, MARIA PILAR	4	330-A 330-B	AIARA / AYALA	ORUBEA / SOLAR ZELAIA / PRADERA		710 68	219 17	9/6/22	12:45
17/000	AYUNTAMIENTO DE AYALA	4	179	AIARA / AYALA	ORUBEA / SOLAR	34	366	137	9/6/22	13:30
18/000	ABASOLO, IRABIEN, M. ISABEL	4	205	AIARA / AYALA	ZELAIA / PRADERA		4.384	856	13/6/22	10:00
10/000	ARZA, LARRINAGA, M. CRUZ	5	2398	AIARA / AYALA	ZELAIA / PRADERA		588	171	13/6/22	10:45
9/000	OTAOLA, ALDAMA, FRANCISCO	5	524-A	AIARA / AYALA	ZELAIA / PRADERA	3	1.910	416	13/6/22	12:00
3/000	SAN MARTIN, DURANA, F. JAVIER	5	2381	AIARA / AYALA	ZELAIA / PRADERA		620	50	13/6/22	12:45
15/000	CONSORCIO DE AGUAS KANTAURO URKIDETZA	5	788-A	AIARA / AYALA	EZ-EMANKOR / IMPRODUCTIVO		102	102	13/6/22	13:30
8/000	MENYO, ECHAURREN, ELOISA	5	2389-A	AIARA / AYALA	ZELAIA / PRADERA		1.875	531	14/6/22	10:00
25/000	MENYO, JAUREGUI, MIGUEL ANGEL	4	325	AIARA / AYALA	MENDIA / MONTE		423	121	14/6/22	10:45
23/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE MURGA	4	720	AIARA / AYALA	MENDIA / MONTE		729	277	14/6/22	12:00
14/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE IZORIA	5	452	AIARA / AYALA	MENDIA / MONTE	13	829	236	14/6/22	12:45
1/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE IZORIA	5	571-A	AIARA / AYALA	ZELAIA / PRADERA		1.701	623	14/6/22	12:45
2/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE IZORIA	5	544-A	AIARA / AYALA	ZELAIA / PRADERA		2.078	670	14/6/22	12:45
4/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE IZORIA	5	541	AIARA / AYALA	MENDIA B / MONTE B		737	253	14/6/22	12:45
5/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE IZORIA	5	2406	AIARA / AYALA	MENDIA B / MONTE B		419	63	14/6/22	12:45

Esp./Expte. 2022/1